

Bizitza tantaka

Maite Arruti Arakistain



Zumaia Udala

*en skara
txanplan*



Bizitza tantaka

Maite Arruti Arakistain

Julene Azpeitia 31. ipuin lehiaketa

2018

1. saria

2018ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Maite Arruti Arakistain (ipuinaarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Beste tanta bat erori zen, buruz beherako poltsa zapaldu hartatik. Erlojuari begiratu nion; bi segundo behar izan zituen ur-xortak, oraingoan, atmosferarik gabeko espazio huts hartan, tintin egiteari uzteko, grabitatearen indarraren aurrean amore emateko. Plastikozko tutuaren barrena zioan tangada garaitua begiekin jarraitzen saiatu nintzen, bateratutako ur-zurrustadatik bereizten, eta, beso zimurtua inguratu ondoren, esku gainean zeraman inbutuak irensten ikusi nuen, aitonaren odol-korrante motelarekin bat egin zuen arte. Handik aurrerakoa, suma besterik ezin nezakeen egin.

Begietara begiratu nion, baina tanta hark ere ez zuen edabe magikoaren esentziarik, ez baitzuen haren egoera geldoan eraginik izan. Beharbada bihotzeraino iritsi zain egon beharko nukeen, organo haren softwareak soilik irakur baitzezakeen, antza, odol-txostak zeramatzan fitxategi sendatzaileak. Begiak itxi eta ikastolako liburuan zetorren odol-zirkulazioaren errepide-sistema irudikatu nuen, elixir magikoak, zainetan barrena, egin beharreko bidea buruz jarraitzeko. Alferrik, ordea, ahizpak orri-ertzetan idatzitako ziriborroak bakarrik etortzen zitzaizkidan burua: *"Mikel goapo"* eta *"bihar ostirala"*.

Odol-tanta batek orduko bi kilometro egin zitzaakeela esan zidan Jonek jolas-orduan, harroxko, bere ama medikua izateagatik, informazio pribilegiatuaren jabe izatea sinetsita. Hori horrela bazen, erreferentziako tanta hark aspaldi iritsi behar zuen bihotzera, baina ez zen, aitonaren begitarte goibelean, mutazio nabarmenik sumatzen, zurrunga hots isilak eragindako oihartzun apala besterik ez baitzen entzuten, zirin kolorez margotutako gela triste hartan. Logelaren itxurak, gainera, ez zuen optimismorako itxaropenik ematen. Heriotzarako gelaurrea zirudien, garbia baina nortasunik gabea, partekatua baina isolamenduaren ordezkaria. Lixiba usaina ere nabarmena zen, garbitasunaren testigu, baina baita intsentsu antzeko usain gozo izpirituala ere, aurrekoa disimulatzeke baliagarria zen kirats-estalia. Amak ospitaleko hatsa deitzen zion zuzenean, giza genomak txertatutako geneek higuingarritzat hartzen zuten lurrin nazkagarria. Sendagaiek, garbitasun-produktuek, gorputz izerditu eta barne-isuriaren inkontinentziek ere zeresana izango zuten sudur-zuloetako galbaheak hain lotsagabe zeharkatzen zituzten isurtze ezatseginen kanporatzean.

–Ama, aitonak ba al du bihotzik?

Amak zaputz aurpegia jarri zidan, eta kopetan irakurri nion ospitalera etortzen ez uzteko eman zizkidan arrazoietako bat nire ernegazio-ahalmena zela, gutxiena behar zenean, bazterrak nazkatzeko nuen gaitasun aparta.

–Utzi txorakeriak esateari, Ainhitze, nola ez du bada bihotzik izango! –aurpegiratu zidan– ez baduzu lagundu behar, gutxienez ez itzazu ingurukoak gogaitarazi...

Eta betiko erretolikarekin jarraitu zuen: haurrek ez luketela ospitalera etorri behar, sukarrez gaixotutako gameluek ez zutela gela hartako beroaren inbidiarik eta pisatu ondoren porruei zati berdea kentzea lotsagarrikeria hutsa zela. Hori esaten zuen, edo hori esaten zuela imajinatzen nuen, amaren ahotik hitz-jarioak ihes egiten zuenean, belarrien etengailua itzaltzen bainuen, aitonak erakutsi bezala. Bizirauteko oinarrizko teknika.

Gauza asko irakasten zizkidan aitonak, urte asko bizitzeak bizi-fardelak betetzen zituela zioen berak. Batzuk baliagarriak eta besteak, trastelekuan ahaztutako tramankuluak bezala, bota orduko faltan botatzen direnak. Gogoan nuen, ikastolan, natur zientzietako lehen ikasgaiak aztertzen hasi ginenean, sortu zitzaidan ezinegona, giza gorputzak barruan ezkututzen zuena ikustean eman zidan itolarria. Aitonari esaten nion ezinezkoa zela barruan horrenbeste gauza kabitzea, inoiz tiraderaren bat itxi ezinik geldituko zela, bere gelako jostailuena bezala. Egunen batean amak besoa estutuz gero, gibela zilborretik aterako zitzaidan.

–Aitona, Gotzon irakasleak esan digu badaudela bihotzik gabe bizi diren izakiak.

–Baita gizakiak ere, Ainhitze, makina bat bai. Baina horiek ezin genitzakengan gizakitzat hartu –eta barre maltzurra egiten zidan betaurreko gainetik–, protozootzat baizik.

Odolez betetako puxikak ginela uste nuen nik ordura arte. Patatak zuritzeko labana arkatzak zorrozteko erabiltzen nuenean, emaitzak ez zidan bestelako errealitatearik zegoenik pentsatzen uzten: odola tantaka, ebakia egin ondoren. Eta amak ere, haserre, ez zidan barruko organo garrantzitsuren bat ebaki nezakeenik argitzen:

–Merezi, esandakoa ez egiteagatik! Mila bider esan dizut txorroskiloa erabiltzeko. Nik ez dizut aizkorarik ematen tortilla jateko, ezta?

–Baina odola daukat, ama! –esaten nion negarrez.

–Bai, odola. Zer nahi zenduen ba? –begiratzen zidan erdeinuz–, koka kola irtengo balitz kezkatzen hasi beharko genuke. Baina odola da, azken finean. Zer uste duzu dugula barruan?

Ama beti zegoen inguruan kaka-usaina balego bezala, mutur estu. Ez zen harritzekoa, goizeko bostetan joaten zen institutua garbitzera, makarrak begietatik kentzeko astirik gabe, eta zortzietarako etxera itzultzen zen, ni ikastolarako atondu eta anaiari biberioa emateko. Arnasestuka irekitzen zuen atea, familia bakarrik uzteak kontzientzian sortzen zion harraren mingotsa jasan ezinik. Baina begiak naretzen zitzaizkion aitonaren ahotsa entzun eta sukaldera sartzen zenean. Atetik begiratzen gintuen, Unai biberioari zurrupaka, eta ni aitonarekin partxisean, maddalenaren azken papurra mahai gainetik xurgatu nahian. Baina barealdiak gutxi irauten zuen, berehala hasten baitzuen eguneroko sesioa Leirerekin, ohea egin zezan. Eta, gainerako nerabe bihozgabeek bezala, ateari danbatekoa emanda joaten zen ahizpa ikastolara, aitaren zantzuak amaren burmuinean tintin egiten zuten bitartean. Eta jarraitu egin behar, ikastolako eta haurtzaindegiko orduak, heziketa bermatzeaz gain, etxez etxeko ibilbide zoroa ere ahalbidetzen baitzuten: kristalei distira atera, harrikoak egin eta komun-zuloak garbitu.

Ez zen harritzekoa amaren aldarte piperra, umore ozpindua. Aita, eztabaida gogor baten ondoren, ate-danbatekoa eman eta joan zenetik, ez zuen lasaitasun segundo bat bera ere gozatzeko aukerarik izan. Aitonak laguntza eskainiagatik, ez zitzaion erraza gertatu kea baino azkarrago desagertu zen senarraren aitari baietz esatea. Frustrazio-egoerak, gainera, amaren aurpegia zizelkatu zuen, zimur eta keinu goibelek arimaren tristura isla zezaten.

Bera ikusten zuenean, aitaz gogoratzen zela esaten zidan aitonak, horregatik egiten ziola errieta sarri, egoeraz konturatu ondoren, negarrari ekiteko. "*Pazientzia, Ainhitze, pazientzia*" entzuten nuen belarrietan, etengabe, mundu-esperientziaren kateetatik askatzeko mantra errepikakorra. Baina nolabaiteko sinbiosi-egoera lortu zuten biek, beharrak horretara bultzatuta, eta aitonari iktusak eman eta konorterik gabe gelditu zenean, pikutara bidali zituen amak kristalak, harrikoak eta komun-zuloak.

Bigarren tantari so egin nion beste bi segundotan. Txorta-ibilbidea begiekin eta gogoarekin jarraitu banuen ere, botila malapartatu hartatik zihoakion sendakinak ez zuen aitona iratzartzen, eta horrek susmo kezkarrien ezpalei su eman zien. Zain egon nintzen ama, kafesne bila, korridoreko makinara joan zen arte, eta, atea itxi zuen orduko, aulkia ohe ondora bultzatu eta gainera igo nintzen. Burua bular gainean jarri nion aitonari, eta paparreko ileek belarri-zuloan egindako azkuratik at, ez nuen ezer sentitu, ezta entzun ere, astiro hasitako zurrunga hotsek abiadura handiko trenaren martxa hartu baitzuten, dagoeneko.

–Aitona –xuxurlatu nion–, ondo al zaude? Lemazainik gabe gelditu al zara?

Ez zidan ezer erantzuten. Baina hori sarritan egiten zidan, gero, gutxien espero nuenean, susto beldurgarria emateko, ezustean. Barre egiten genuen horrelakoetan, eta nire buruari esaten nion hurrengoan ez ninduela engainatuko, baina beti aurkitzen zuen ilargirako bidean nindoan uneren bat. Oraingoan, ziurtatzeko, mihia atera eta asto-belarriak jarri nizkion behatzekin. Unai ume-kotxean zegoen eserita guri begira, eta, imintzioka ari nintzela ikusi zuenean, barre-algaraka hasi zen, txupetea lurrera erori zitzaion arte.

–Ixo, Unai! Ama etorriko da, eta agiraka hasiko zaigu!

Leirek ingeleseko eskola izan ez balu, koskorreko bat emango zidakeen, “*tuntun paelarena egiteagatik*”. Lurretik jaso nuen txupetea, eta ohetik zintzilika zegoen maindirearen puntaz garbitzen saiatu nintzen, aho zalapartatsuan txertatzeko. Unai miazka hasi zitzaion, baina ezpain-ertzek dar-dar egiten zioten, niri begira, barre egiteko aitzakiaren bila. Baina une serioa zen hura, ez zen txantxetarako garaia.

–Begira, Unai, ospitalean gaude –eta anaiak barre egiteko nahiaren seinaleekin jarraitzen zuen– eta egoera oso larria da; aitonari “*kaktusak*” ziztatu dio, eta orain lo gelditu da, seko!

Ez nuen sumatu ama atea irekitzen.

–Baina ze arraio esaten ari zara? Ez dio *kaktusak* heldu! *Iktusak* eman dio!

Eta berriro jasan behar izan nuen haren hitzontzikeria, beti txorakeriatan nenbilela, horrelakoak etxean soilik esango banitu, sikiera, ez litzatekeela hain larria izango, baina kapaz nintzela eskolan ere kontatzeko, eta norbaitek aitona mexikar kaktus-jaletzat hartuko zukeela, edo lorazain aza-kirtentzat.

Belarriko etengailuari buelta erdia eman nion, berriro ere, eta aitonaren kurrunkahots nagiarri erreparatu nion, erne, inork antzeman gabeko sintomarik edo igarriko ote nion. Baina, eztarriko orroak sortzerakoan, sudurrak egiten zizkion dardarizo urduriak ez ziruditen gaixotasunarekin zerikusirik zutenik, ezta euliak uxatzeko abilezia bereziarekin ere.

Ama ez zen berehalakoan isildu. Triste zegoen, zaputz, baina triste. Esaten ez bazidan ere, nik banekien egoera haren emaitza zein izan zitekeen, aitona hiltzea, hirurogeita bederatzi urte besterik ez zituen arren. Aitonak aspaldi hitz egin zidan heriotzaz, eta oraindik ere, sarri izaten genuen hizpide. Prest egon behar nuela esaten zidan, ez

izateko heriotzaren beldur, bizitzaren zatia besterik ez zela hiltzea. Niri pena handia ematen zidan hori entzuteak.

–Norbait hiltzen denean beldurra eta tristura sentitzen ditinagu –esaten zidan– baina horrela izan behar din. Hori gertatzean, oso goibel jartzen gaitun, betirako galtzen dinagu eta. Baina ona dun negar egitea, eta elkarrekin pasatako une zoriontsuak gogoratzea.

Niri ez zitzaidan atsegin horretaz aritzea, baina aitona temati jartzen zen.

–Niri beldurra ematen dit hiltzeak.

–Beldur izatea ez dun txarra, eta aldi berean, ez dun harrizkoa. Inork ez zekin zer dagoen horren atzean. Horregatik –azpimarratzen zuen–, adoretuak izan behar dinagu, eta, gertatzen ez den bitartean, bizitzaz gozatu.

Pentsamenduen mataza askatzen zuen, nik hariari tira niezaion, eta, pixkanaka bada ere, bere jokoan erortzen nintzen, bizitzaren misterioetan blaitzeko, bizi-egonaldia iren iragan ezintasunaz ohartzeko.

–Nik baimena ematen dinat, ni hiltzen naizenean, haserretzeko edo triste egoteko. Baina aldi baterako bakarrik. Pixkanaka arintzen joango zain, eta une onak bakarrik gogoratuko ditun azkenean.

–Ni betirako egongo naiz triste zu ez zaudenean!! –haserretzen nintzen ni-mingulin hutsa bilakatuko naiz!! Eta barre egiten badut... triste jarriko naiz, triste ez nagoelako!

Ordubete aspergarri baten ondoren, medikuak bisita egin zion. Mila tramankulurekin arakatu zuen aitonaren gorputza: belarriak, begiak, beso eta zangoen erantzuteko gaitasuna eta baita hanka azpiko kolorea ere. Azterketa horrekin zerbait ondorioztatu bazezakeen, inork ezin zuen antzeman, jarrera hotza baitzuen, “*nik badakit eta zuk ez*” izendapenez ezagutzen zena. Automata moduan jokutzen zuen, milaka aldiz gauza bera egin eta gauza berak esan dituenaren antzera, asperdura profesionalaren gatibu. Zain egon behar zela esan zion amari, oraindik goiz zela diagnosi zehatza emateko, eta jainkoagatik ez ziezaiola inork bururik mugitu, barruko odolbildua leku arriskutsuagora mugitu ez zekion.

Handikeriaz adierazten zituen esatekoak, nork bere burua aski duela ikusten duen handiustea bezala, esperantza-iturri izatea jakitun, besteen zoriona baldintzatzen duen aldagaia izateaz harro. Eta harrokeria horrek aseptikoa egiten zuen, emoziorik gabea, neutroa, “*zu hor eta ni hemen*” zientzia-ezagutzan katedraduna. Jasanezina iruditu zitzaidan medikua, memelo hutsa. Unai eta nik medikuetara jolasten genuenean,

begirune hobez tratatzen genuen *Periko* hartza, amak Eroskiko puntuekin eskuratutako peluxea. Baina *Periko* ez zen biziduna, hori zioen aitona, beraz, ezin zuen hil, eta Unaiak hormaren kontra ematen zizkion burukoak sendatzeko egiten nituen ahaleginak ez omen zuten ezertarako balio, esparatrapuz josten banuen ere.

Medikuaren atzetik langile-desfilea hasi zen. Bi emakume sartu ziren, eta txistu batean atera gintuzten gelatik, medikuaren mantal bera eta eskuan lanbasa eramateak ematen zien ahalduntzeagatik puztuta. Lurzorua distiratsu utzi zuten, patinaje artistikoaren entrenamenduak egiteko prest, baina amaren begirada zorrotzak asmo guztiak uxatu zizkidan. Ondoren, meriendarekin sartu zen mutil gazte bat, presaka, eta aitonaaren aldamenean apendizera kenduta zegoen gizonari ohe-oineko mahaitxora jaurti zion kafesnea, oiloei arta-aleak bezala. Komuneko pixontziak hustera etorri ziren ondoren, pertsianak igotzera, komuneko papera aldatzera, eta, berriro ere, mutil gaztea meriendako ontziak jasotzera, presaka, arta-aleak jandako oilo aseek arrautzarik ipini ote zuten egiaztatu gabe.

Erizaina izan zen langile-erakusketa hartan azkena, eta, zekarren aurpegia ikusita, ez zirudien oso pozik zegoenik. Beharbada ordu asko zeramatzan lanean, edo uniformea estuegi gelditu zitzaion azken Gabonak ezkeroztik, baina garbi zegoen "*zoriontsua*" ez zela bere egoera hobekien definitzen zuen hitza. Tentsioa hartu zion lehenik, eta makinatxoak irakurritako parametroak tablet batean apuntatu zituen, luxuzko jatetxe bateko maitrearen antzera. Buruarekin ezezko imintzinoa egin zuen, datuak ez zeuden, antza, gaixotasunaren bilakaera-neurriekin bat. Pixa-zunda begiratu zionean ere buruari eragin zion, ezker-eskuin, ondoren, bigarren platera tabletean apuntatzeko.

Atzetik joan eta ohearen manta igo nuen zunda ikusteko: pixa zegoen. Ahoa ireki nuen koka kola egon balitz kezkatzen hasi beharko genukeela esateko, baina amaren begiradak, berriro ere, inizatiba guztiak zapuztu zizkidan.

Eskutik heldu nion aitona, erizain zaputz hark oheratuak nire babesa zuela ikus zezan, beharrezko errespetuz tratatzeko, jolas-orduan Joneri egin nion bezala, belarran koska egiterik ez bazuen nahi. Haren bihotz-pilpirak entzun nituen eskuetan, sendo, bizia mantentzea beste helbururik ez zuen makineria biologikoa taupadaka.

Gorputza martxan jartzen zuen zergatiaren misterioa, mugimenduaren arrazoia, energia unibertsalaren motor eta funtsa. Zerk bereizten zuen gorputz biziduna bizigabetik? Non zegoen bizitzari hasierako danbatekoa ematen zion pizgarria? Oreka biologikoa baldintzatzen zuen etengailua? Inork ezin ulertu gorputzak biziari eusteko zuen arrazoia, ezin ezagutu martxan egotea baldintzatzen zuen erregaia, behin itzaliz

gero, ezin baitzen berriz bere onera itzuli, iratzargailuaren bolumena gorenean jarriagatik.

Gotzon irakaslea saiatu zen hori adierazten, baina nik ez nion ezer ulertu. Gorputza ordenagailuaren antzera zebilela esaten zigun, baina, orduan, zergatik ezin zitekeen berriro piztu? Hainbat gorputzeko zati elkartuz gero, zergatik ez zen bizitzen? Bizi-energiari esker gertatzen zen, itxuraz. Batzuk arima deitzen omen zioten, besteek izpiritua, eta gehienek onartzen zuten, gorputzak izaera izpiritual horri eutsi ezin zionean, ihes egiten zuela.

–Baina... arima berria txertatuz gero?

–Ezin da –erantzuten zidan irakasleak, deseroso–, disko gogorraren edukia ezabatzen da, garuna formateatu arte.

Hori bai, hori ulertu nion, edozein adierazpenekin konformatzen zen horietakoa ez izanagatik. Informatika ulertzeko berezko deskodetzailea nuela esaten zidan aitonak, hizkuntza digitala aditzeko antena propioa. Betidanik egin zitzaidan oso ulerkorra.

Eta sukaldeko mahai gainean baserriko oilaskoa hilik ikusi nuenean ere ez nintzen konformatu, hartu nuen disgustuarekin. Lo zegoela esan zidan amak, iratzartzen zenean etxera joango zela, leihotik hegaka. Baina lepoa zintzilik edukitzeak eta Gotzon irakasleak oiloek hegan ez zutela egiten erakusteak nahikoa izan ziren, ama gezurretan ari zela konturatzeko. Alferrik izan ziren, ama auzoko Marikarmenekin berriketan ari zela aprobetxatuz, animalia gaixoa bizitzara itzultzeko egin nituen ahaleginak. Mahai gainetik lurrera jaitsi nuen orduko, Unai hurbildu zitzaidan, katamarrean, *Perikori* begiak ateratzen saiatzea baino ni egiten ari nintzena interesgarriagoa zela iritzita. Armairutik pasapurea hartu nuen lehenik, eta, ondoren, amak ilea lehortzeko erabiltzen zuen luzagarria. Kablearen ertza egokiro txertatzea beste kontua izan zen, baina informazio gehigarriaren faltan, loki emea oiloari sartu nion, eta arra, berriz, korapilatu egin nion puregailuaren kirtenari. Hontza adina atentzio jarri zidan Unai pasapurea astintzen hasi nintzenean, baina indar guztiarekin eraginagatik, oiloak ez zuen bizi-aztarnarik erakusten. Utzi egin behar izan nion tramankulu madarikatu hari birak emateari, arnasestuka, nire giharrek ez zeukatelako, antza, oilaskoa berpizteko adina energia zinetikoa sortzeko gaitasunik. Beharbada bizikletaren dinamoa behar nuen energia mekanikoa elektriko bihurtzeko, baina hauspoari eusten lanak, beraz, korapiloa askatu eta entxufean sartu nuen.

Eztanda-hotsak tiroa lez atera zuen txupetea Unairen ahotik, oiloaren mokoan katigatuta gelditu zen arte. Hasierako sustoak poz-algarari leku egin zion, puxika lehertu

balitz bezala, eta, zalapartak erakarrita Leirek atea ireki zuenean, barre egin zuen ikuskizunaren aurrean, Super Nintendorekin jolasteko argirik gabe utzi banuen ere. Etenaldi askorekin bada ere, gertatutakoa kontatu nion ahizpari, Unaik oilasko belztua kolpatzen zuen bitartean, eta, behingoagatik, lagundu egin zidan amaren atzaparretatik ihes egiten, eskaileretatik oilaskoarekin jaitea ezinezkoa baitzen hura eskailburuan hitz eta pitz zebilen bitartean. Hegazti gaixoaren hankari luzagarria lotu eta, pixkanaka, kalera jaitsi genuen, balkoitik zintzilik. Ama ez zen harritu bere aldamenetik zitzu bizian atera nintzenean, beti bainenbilen korrika. Animaliarenean gorpua eskuekin hartzeko garaiz iritsi nintzen, eta, korapiloa askatzen ari nintzela, liburu-dendaren ataria erraztatzen ari zen Antonioren begiak garondoan sentitu nituen. “*Amari kontatuko dio*” pentsatu nuen, baina ez zegoen atzera-bueltarik. Eskuetan hartu eta parkeko hortentsien azpian lurperatu nuen, estatu-ohorezko hiletan inbidiarik gabe.

–Ama, arrazoi zeneukan –esan nion eskaileretatik gora nindoala–, oilaskoa hegan irten da leihotik. Neronek ikusi dut!

Gogoan dut aitonak hilerrira pasiora eraman ninduen egun hura. Antzina lurperatutako hilobiak erakutsi zizkidan, eguzki erreak nortasunaren zantzuak ezabatutakoak asko, zentzurik gabeko hizki isolatuak soilik irakurgai; baita marmolezko panteoia eta errauts-kutxatila gordetzeko nitxo txikiak ere. Hori ikustea garrantzitsua zela zioen, merkatura tomateak ikustera joaten ginen modura, hil ondoren gure gorputzari ematen zitzaion trataera ere ezagutu egin behar nuela.

–Hemen bukatzen dun guztia, Ainhitze. Kontuan izan behar dun bizitza horregatik dela hain erakargarria, mugatua delako.

–Hemen biziko zara hiltzen zarenean?

–Ez, Ainhitze, ez. Hemen egongo dun nire gorputza, desegin arte, baina ez naun hemen biziko, hilik egongo naun eta! Gorputzak funtzionatzeari uzten zion, eta prozesua atzeraezina dun.

–Baina guztiok hil behar al dugu? –galdetzen nion nik, beldurrez–. Amak ere bai?

–Bai, Ainhitze, amak ere bai. Baina hori ez dun denbora laburrean gertatuko –lasaitzen saiatzen zen–. Hori pentsatu beharko geniken, behintzat!

–Aitona... eta... aita ere hilda al dago?

Mutu gelditu zitzaidan, une batez; ez genuen askotan ateratzen aitaren gaia. Amak, orde, ez zidan inoiz ezer ezkututzen. Gurea “*aita kanpoan den familia*” zela jakinarazi zidan, aita izatea ez baitzen batere erraza, eta denak ez zeuden horretarako

prestatuta, antza. Familia mota asko zeudela esaten zidan, hainbat bariazio, permutazio eta konbinazio: aita-ama haurrekin, aita-ama haurrik gabe, bi ama, bi aita, aita bakarra, ama bakarra, aitona-amonak ilobekin..."*Eta baita txakurrarekin ere!!*" erantzuten nion nik, harri-koxkorra jarri nahian.

–Ez, ez zagon hilda, galduta baizik. Inoiz bilatuko din, berriz ere, bide zuzena, eta zuengana itzuliko dun.... burgoikeriaren landetan bidaiatzeari uzten dionean... Eta gu zain egongo gaitun ongiatorria emateko, baietz?

–Bai, horixe! –erantzun nion nik.

Ni ere hondartzan galdu egin nintzen behin. Inoiz ez nuen hain gaizki pasa. Ingurura begiratu eta izter iletsuak, lastozko txapelak eta danborraren gaina baino azal tiranteago zuten tripa borobil koipetsuak besterik ez nituen ikusten. Iragana begi aurretik igarotzen den istripuetan ez bezala, berehalako etorkizuna bistaratu nuen segundo batean: bakarrik ikusi nuen neure burua, txiroen modura bizitzen, arkakusoz betetako arratoi-txakurra lagun, amak bizkar gainean kolpatu zidan arte.

–Nora uste duzu zoazela, Ainhitze?

Bira eman eta *Periko* baino indartsuago estutu nuen. Ez nekiela nora jo esan nion, asko beldurtu nintzela, eta, bide batez, meriendatarako ez nuela urdaiazpiko egosirik gehiago nahi, nahiago nuela Panplonako txorizoa. Orduan bakarrik entzun nion maite ninduela esaten.

Gizon apendizet gabeak sabeleko puntuen egoeraz galdetu zion erizainari, eta horrek txakurrari adina kasu egin zion, tabletak erantzuten ez ziolako amorratuta. Termometroa ertzetik hartu eta gogotsu astindu zuen, heste sobrea galtzea nahikoa ez eta, ia begia ere atera beharrean. Besapean sartu zien biei, baratzean porru-kimuak sartzan ari balitz bezala, euroa aldapa behera baino azkarrago. Gorputzaren tenperatura beira-tutuan islatzen zen bitartean, amak hirugarren graduko galdeketa egin zion: zenbat denbora egon behar zen buruan kalterik egon zen jakiteko, mugimenduan edo hizkeran eraginik izango ote zuen, eta Donostiatik Bilbora joateko autobusa zergatik zen Bilbotik Donostiara joatekoa baino garestiagoa.

Hori esaten zion, edo hori esaten ziola imajinatzen nuen, poltsa zapaldu hartatik erortzeaz zegoen tantak nire atentzio osoa erakarri baitzuen, berriz ere. Hiru segundo ondoren, sendagaiak ibilbideari ekin zion plastikozko hoditik barrena, anatomia berak garbi marraz ezin zezakeen zalantzazko ibilbidea egitera. Bizi-itxaropenez hornitutako tanta hura aurrera zihoan, etorkizunari esperantza-bidea ireki nahian, odol-zurrunbiloan borroka egiteko prest. Sendagai zati xume hark ez zuen korronteak eraman zezan

besterik egin behar, erantzukizunetik at, barruko altxorrekiko arrotz, egin behar garrantzitsuaren ezagutzatik kanpo; bizia eman, bizirik izan gabe. Eta aitonaren gorputzean sartuko zen, halabeharrak ditxosozko odolbildu hura bere norabidean jarriko zuen ziurtasunik gabe.

Edukiztaileak, berriz, ez zuen inoiz ur-lasterrek eramaten utzi, ez zen joera nagusiaren iparrorratz izan. *"Ibiliaz egiten dun bidea"* zioen, haurrek botatako baloia jasotzean, parkeko belardian uzten zuen oin-arrastoari begira. Norberak eratzen zuela ibilbidea, bidatza, historia pertsonala; batzuetan ongi, besteetan oker, momentu alai eta ataka garratzekin. Hori omen zen bizitza, bizi ahala aurrera egitea, bidean harri koxkorak aurkitu arren, estropezu egin eta berriz zutitu, jakituria berriarekin aurrera egiteko, atzera begiratu gabe. Iragana ezin zitekeen berreskuratu, eta etorkizuna, aldiz, iristear zegoen, zerumugan begiztatuagatik, iragarri ezin zena.

–Eta zu hiltzen zarenean, aitona, bisitan joan naiteke? –galdetu nion hileritik itzultzean.

–Amak eramango hau, urtean behin bada ere, loreak ekartzera –irribarre egin zidan–. Baina ez daukan bisitara honaino etorri beharrik, egunero ikus nazaken, nahi izanez gero. Ni beti egongo naun zuekin.

–Egunero? Non?

Aitonak barre egin eta buru-gaina laztandu zidan, ileak trikua bezala jarri arte.

–Ispiluan!

Amaren hitzontzikeria zen hura, bien arteko antzekotasuna bitxikeria baino gehiago zela esaten zuen, aitonaren bertsio murriztua nintzela ni, fitxategi konprimatua. Sudur zuta genuen biok, ikatzezko begiak eta gaztaina-koloreko ile izurduna, izaera adarjotzaile eta zuhurraz gain. Ispiluan ikusten zen hura familiaren bizi-bilakaeraren egitura nahaspilatuaren emaitza besterik ez zen, aurrekoek oinordetzan emandako milioika ezaugarrien norgehiagoka biologikoaren ondorioa. Gene-kodez osatutako izakia nintzen ni, arbasoen informazioa jasotzen zuen erretilua. Aurrekoen ezaugarri fisiko, fisiologiko eta morfologikoak egunero ikusten nituen ispiluak islatutako irudian, eta joandako horien guztien testigantza osatzeaz gain, nik sortu hutsetik ez nengoela han erakusketen zidan, asaba zaharren adierazgarri isila nintzela, lurperatutako horien testigantza biziduna.

Oinordetzan jasotako ezaugarri igorgarriak sentitzen nituen begietan, besoetan, ezpainetan, bular-kaiolan taupadaka nebilkien bihotzean, nire izaeraren arrazoi eta erantzule zirenen bizi-gotorlekuan.

Aitonaren bizi-indarra suma nezakeen esku artean, eta bestelako begiekin ikusi nuen, inoiz ez bezala: ondorengoak blaitzeko informazio-iturri modura, familiaren ondarea jasotzen zuen liburutegi eta altxorra. Sustraiak aurretikoekin lotzen gintuzten, geneen bitartez, leinu jakin baten partaide egin eta gizartearen taldekide bilakatu arte. Mugatuak ginela esan zidan aitonak, eta ez zen egia, hilezkorrak ginen, betierekoak, bere onetik ateratako estatu garatueneren presidenteren batek guztiok pikutara bidali arte, bederen, jainkoa izateko ametsen zorabioaz gaixo.

Mundu digitalarekin antzekotasun handia zuen horrek guztiak, baliokideak ia. Byteek ere informazioa igortzen zuten, geneen modura. Bit-talde ordenatuei esker, ordenagailuetan eta telekomunikazioetan informazioa bildu eta garraiatzen zen, era automatikoan, sistema binarioari esker. Belarrira hurbildu nintzaion, amak ez entzuteko moduan: *“Informatikari egiten naizenean, aitona, errealitate birtualeko izpirituak egingo ditut, arima artifizialen programak, hildakoek bizia berreskura dezaten.”*

Gorputzak xurgatutako tanta hura odol-korrontean barrena sentitu nuela iruditu zitzaidan, aitonaren eskuak nireen artean nituenean, eta gogotsu estutu nizkion, abiada emateko, bateratutako izpiritua senti zezan: *“badoa, aitona, badoa”*. Sendagai-txortaren ibilbidea hatz erakuslearekin marraztu nuen aitonaren gorputz gainetik: eskuetatik besora, sorbaldara ondoren, enborraren ezker aldetik zangora... horrela jarraitu nuen minutu batean, karreretako autoen motor-orroak eztarritik jariatzen, amak erizainarekin zuen solasaldia eten zuen arte:

–Utziko al diozu txoroarena egiteari? –galdetu zidan haserre–. Jaramako zirkuitua dela uste al duzu?... Ez iezaiozu bururik ukitu, entzun?

Behatza patrikan sartzearekin batera, berbetan jarraitu zuten: gero eta iktuk-kasu gehiago zeudela, medikuntzak asko aurreratu zuela eta bizkotxo harrotzeko hobe zela zuringo irabiatua, legamia kimikoa baino.

Hori esaten zuten, edo hori esaten zutela imajinatzen nuen, hizketan hasi orduko eskua poltsikotik atera eta berriro hasi bainintzen tanta haren alegiazko lasterketa behatzarekin irudikatzen, eztarriko urrutiko aginteari bolumena jaitzita, noski, mutu jarri arte. Bihotzeraino iritsi nintzenean, zurrunbiloaren imintzioa egin nuen:

–Jaun-andreok! Hemen dator sendagaia! Oraintxe sartu da ezkerreko aurikulan, arrapaladan, zutik egon ezinik, eta balbula mitralak emandako ipurdikoak ezkerreko bentrikulura pasa du!

Eta irrati-emankizunarekin jarraitu nuen, isilpean ari nintzelakoan.

–Eta hemen doa! –arteria-trazadura jarraitu nuen hatz erakuslearekin– iritsi da ia burura... hemen dator... eta talka egin du, jaun-andreok, odolbildu madarikatu horrekin... eta...

Gauza bat argi ikasi nuen: apendizeak ez zuen umore-gaitasunarekin zerikusirik, gelakidea barrez lehertu baitzen niri begira, eta, batez ere, Unaiak txupetea ahotik kendu eta “gooooooooo!!!!!!” oihukatu zuenean.

Ama zuri gelditu zen, lurrak oin azpitik ihes egiteko amorratzen. Ziur nengoen kopetako zimurrek esanahi jakina zutela Braille hizkuntzan: nahiago zukeela edozein tokitan egotea han baino; krokodilo batek irenstea, gaizki hezitako alabaren jokabidea bidezkotzea baino. Hori ondorioztatu zitekeen, behintzat, bere keinu eta mugimenduei erreparatuta. *“Aitona beraren jokabidea dauka”*, esan zion osasun-langileari, aitzakia hobea aurkitu ezinik, *“biak berdinak dira, noiz alboka, noiz txistua, noiz adarra jotzen”*.

Erizainak purrustada egin zuen, eta Herodesen sindromeaz kutsatu zela berretsi zion bere buruari, ez zituela haurrak atsegin. Agurrik esan gabe alde egin zuen. Amari ez zitzaion desairea gustatu, azken finean, bere umeak ginen. Txamarra jantzarazi eta apendizea mutilatutakoa agurtu zuen, ahalik eta azkarren sendatzeko desioak eskaini ondoren. Eskuaz laztandu nuen aitona, eta, kopeta ukitzean, ginkana zoroan iritsitako bizi-tanta sentitu nuen, borborka. Hori begitandu zitzaidan, hori iruditu nuen, hori nahi nuen.

Eta, kalerako bidean, ate-eskulekuari heldu nionean, ahots tinkoa entzun nuen atzean:

–Ez haiz joango aitonari musurik eman gabe, ezta?

Eta ezpain-ertzek belarriak ukitu zizkidaten.